

# Arrautza botilan


Hona hemen hutsa sortzearen printzipio zientifikoaren beste emanaldi bat. Kasu honetan, arrautza egosi bat geratzen da botila barruan harrapatuta pospoloak itzaltzean. Errazegia iruditzen bazaizu, saiatu arrautza gordinarekin (ikus Metodoa ataleko 5. urratsa).

## BEHARKO DUZU

- Arrautza egosi bat (zuritua)
- Pospoloak (sukaldeko pospolo luzeak dira egokienak)
- 1,5 L-ko esne-botila bat
- Arrautza gordin bat (hautazkoa)
- 200 ml ozpin (hautazkoa)

## METODOA

1. Saiatu pare bat aldiz arrautza esne-botilaren ertzean jartzen (alde estua beherantz).
2. Piztu pospolo bat eta bota botila barrura.
3. Pospoloa ia erabat erre denean (erre barik dagoen zatia begiratu), ipini berriro arrautza botilaren goialdean.



4. Ikusi nola xurgatzen duen botilak arrautza.
5. Batzuek emaitza bera lortu dute arrautza gordinarekin; aurretik, arrautza ozpinetan jartzen dute ordu batzuek. (Ozpinak oskola biguntzen du.)



### **ZIENTZIA-AITZAKIA**

Azalpena oso erraza da: pospoloak airea berotzen du, eta airea hedatu egiten da (apur batek ihes egiten du) eta dentsitate txikiagoa lortzen du. Arrautza botilan jartzean, sua itzali egiten da, oxigenoa ahitu egiten delako. Arrautzak, kanpoaldean, ohiko aire-presioa jasaten du (beherantz bultzatzen duena) eta presio txikiagoa barrualdetik (gorantz bultzatzen duena). Ez dago lehiarik: beheranzko presioa da garaile.



### **KONTUZ!**

Arrautza botilan jarri aurretik, pospoloa ahalik eta gehien erre behar da. Pospolaa zenbat eta luzaragoan erre, beroago egongo da barruko airea... eta, ondorioz, handiagoa izango da kanpoko eta barruko presioen arteko aldea.

**Kontuz pospoloekin!** Esperimentu honetan pospoloak erabili behar dira, eta heldu arduratsu baten gidaritzapean soilik egin behar litzateke.